

Informazio-dosiera



Kapital sozialerako ekarpenen jaulkipena

[Urriaren 1etik azaroaren 15era]

Borondatezko ekarpenen jaulkipena Coop57ren funts propioak indartzeko

*Coop57-tik borondatezko ekarpenak
jaulkitzeari ekin diogu.*

*Funts propioak handituz, ekonomia sozial
eraldatzaileko proiektuak babesten
jarraitzeko ahalmen finantzarioa ere
handitzen dugu.*

*Helburua 750.000 € eta 1.500.000 € artean
eskuratzea da, urtean % 2ko ordainsaria
duten 1.000 €-ko ekarpenen bidez.*

Jaulkipenaren baldintzak:

Zenbatekoa guztira: 750.000 € eta 1.500.000 €
artean

Ekarpenak: 1.000€-koak

Partaidetza: jaulkipena Coop57 kooperatibako
bazkideentzat da. Gehienez ere honako hauek
eskuratu ahal izango dira:

- 15.000 € bazkide kolaboratzaileek
- 30.000 € zerbitzu-bazkideek

Ordainsaria:

- 2026ko maiatzaren 31 arte: Urtean % 2.
ordainketa: 2026ko maiatzaren 31an
- 2026ko ekainaren 1etik aurrera: Borondatezko
ekarpen galdagarrien ordainsaria + % 1,5. Or-
dainketa: Urte bakoitzeko maiatzaren 31an

Esleipena: ekarpenak eskaera-ordenaren arabera
emango dira, jaulkipena osatu arte

Itzulketa: 4 hilean behin harpidetutako kapita-
la itzultzeko eskatu ahal izango da, eta Coop57
kontseilu Errektoreak baimendu beharko du

➤ Zer dira funts propioak?

Edozein erakunderen **sendotasun ekonomikoa** bere funts propioen zenbatekoaren arabera neurtzen da, funtsean.

Kooperatiba batean, bazkideek zuzenean inbertitu duten finantza-baliabideen kantitatea (kapital sozialerako ekarpenak) edo kooperatiban bertan atxiki dutena (erreserbetara bideratutako sobe-rakina) ordezkatzan dute funts propioak.

Zorrarekin edo kanpo-finantzaketarekin lotuta ez daudenez, funts propioek aldi baterako arriskuei eta beren jarduerari lotutako konpromisoei aurre egiteko duten gaitasuna zehazten dute. Koope-ratiben sendotasun ekonomikoa eta kaudimena bermatzen dute.

Coop57ren kasuan, finantza jardueraren arriskua, funtsean, maileguak jaso eta itzuli ezin dituzten erakundeek eragindako berankortasuna da.

➤ Zeintzuk dira coop57ren funts propioak?

Fundazio-funtsa

Bruguera argitaletzeko langile ohien borroka-ri esker jarritako funts ekonomikoa da, Coop57 martxan jartzea ahalbidetu zuena.

Derrigorrezko ekarpenak kapital sozialera

Coop57ko bazkide egiteko pertsona edo erakun-de bakoitzak jarri behar duen gutxienezko kapita-la. Ekarpene hori itzultzea Kontseilu Errektoreak onartu behar du.

Mailegu-Funts Solidarioa

Coop57ren mailegu bat jasotzen duten erakunde bazkideek kapital sozialari egindako ekarpenez elikatzen den funtsa.

Ekitaldiaren emaitza eta erreserbak

Ekitaldi ekonomiko bakoitzeko emaitza positibo-ak osorik berrinbertitzen dira Coop57n, koopera-tibaren kaudimena sendotuz.


Urte honetatik aurrera, jaulkipen honetan harpi-detutako borondatezko ekarpenak gehituko zaizkie funts propioei.

➤ Zergatik jarri du martxan coop57k jaulkipen hau?

Azken 4 urteetan, bikoiztu egin da indarrean dauden **maileguen saldo biziaren hazkunde**a (emandako maileguetatik itzuli gabe dagoen zenbatekoa). Bestalde, urte horietan **funts pro-pioek izan duten bilakaerak** hazkunde erritmo apalagoa izan du, % 30 ingurukoa.

Bi aldagai horiek (funts propioak eta maileguen saldo bizia) erlazionatzen direnean, kaudimena eta ezustekoei eta/edo ordainketa faltei erantzuteko gaitasuna neurtzen duen ehuneko bat lortzen dugu.

Komeni da, beraz, kopuru horien artean proportzio on bati eustea. Azken urteetako bi-lakaera dela eta, komeni da funts propioak in-dartzea eta handitzea ratio hori hobetzeko eta, horrela, finantza-jarduerari modu sendoan jarraipena emateko eta ekonomia sozial eta soli-darioko proiektu eraldatzaileei **mailegu gehiago emateko gaitasuna indartzeko**.



Testuinguruan jarri ahal izateko eta kanpoko erreferentzia bat izateko: nazioarteko finantza-esparru arautzaileak ezartzen du ratio mota horrek, gutxienez, % 8koa izan behar duela.

Jaulkipen honen bidez, ehuneko handiagoa lortu nahi da, eta horrek, jaulkipenaren gehieneko zenbatekoa lortuz gero, Coop57 nazioarteko finantza-araudiaren gutxieneko eskakizunen % 50 gainetik jarriko luke.

Ondorioz, jaulkipen honen arrakastak funts propioetan izango duen eragina esanguratsua izango da **Coop57k ekonomia sozial eta solidarioaren finantza-beharrei erantzuna ematen jarrai dezan.**

➤ **Jaulkipenaren baldintzak**

Zenbatekoa guztira: 750.000 € eta 1.500.000 € artean

Ekarpenak: 1.000€-koak

Partaidetza: jaulkipena Coop57 kooperatibako bazkideentzat da. Gehienez ere honako hauek eskuratu ahal izango dira:

- 15.000 € bazkide kolaboratzaileek
- 30.000 € zerbitzu-bazkideek

Ordainsaria:

- 2026ko maiatzaren 31 arte: Urtean % 2.
- 2026ko ekainaren 1etik aurrera: Borondatezko ekarpen galdagarrien ordainsaria + % 1,5.

Kapital sozialari egindako borondatezko ekarpen galdagarrien ordainsaria Coop57ren Batzar Orokorrak ezartzen du urtero (2024. urtean: % 0,5)

Ordainketa:

- Lehen ordainketa: 2026ko maiatzaren 31an (2024ko azaroaren 15etik aurrera sortutako ordainsaria)
- 2026ko ekainaren 1etik aurrera: Urte bakoitzeko maiatzaren 31an.

Harpidetza-epea: 2024ko urriaren 1etik 2024ko azaroaren 15era.

Esleipena: ekarpenak eskaera-ordena zorrotzaren arabera esleituko dira, jaulkipena osatu arte.

Itzultzea: 4 hilabeteetan behin eskatu ahal izango da kapital harpidetua itzultzea, eta Coop57ren Kontseilu Errektoreak baimendu beharko du.

➤ **Itzultzeko epeak**

Kapital sozialari egindako borondatezko ekarpenen zenbateko osoa edo zati bat itzultzeko eskatu ahal izango zaio Kontseilu Errektoreari, beti 1.000 €-ren multiploetan, honako epeen barruan:

2026ko maiatzaren 31 aurretik egindako eskaerak

- Aldiak: Urte bakoitzeko urtarrian, maiatzaren eta irailean, hilaren 10. egunera arte.
- Diru-itzulketak: Dagokion zenbatekoa 60 eguneko epean itzuliko da, Kontseilu Errektoreak horretarako baimena ematen badu.
- Sortutako interes-ordainsaria ez da jasoko.

2026ko maiatzaren 31tik aurrera egindako eskaerak

- Aldiak: Urte bakoitzeko urtarrian, maiatzaren eta irailean, hilaren 10. egunera arte.
- Diru-itzulketak: aldi bakoitza itxi eta hurrengo 60 egunetan ordainduko da, Kontseilu Errektoreak horretarako baimena ematen badu.
- Itzulketaren egunera arte sortutako interes-ordainsaria jasoko da.

➤ **Itzultzeko baldintzak**

Nazioarteko Kontabilitate Arauekin eta Kooperatiben Legearekin bat etorriz, **funts propioak indartzeko egindako borondatezko ekarpenak itzultzea Kontseilu Errektoreak onartu behar du, eta organo horrek aukera izango du ekarpen horiek itzultzeari baldintzarik gabe uko egiteko.**

Coop57ren eta haren Kontseilu Errektorearen aurreikuspena eta asmoa da, dirua itzultzeko eskaerak egonez gero, itzulketak horiek normaltasunez gauzatu ahal izatea, aurreko puntuan zehaztutako epeen barruan, Coop57ren 30 urteko historian beti gertatu den bezala.

Oso salbuespenezko egoera batean bakarrik gerta liteke Kontseilu Errektoreak itzulketak bati uko egin behar izatea (adibidez, deskapitalizazio-arrisku handia legokeen kasu batean).

Kasu horretan, horrek ez luke esan nahi ekarpen hori galduko litzatekeenik. Ekarpak indarrean jarraituko luke baldintza berdinetan, baina itzulketak egiteko geratuko litzateke hari uko egitea eragin zuten inguruabarrak aldatu arte eta/edo kooperatibak kapitalizazioa hobetzea lortu arte.

➤ **Ekarpenen bermeak**

Coop57k finantza-jarduera garatzen du bere bazkideen artean, zerbitzu-kooperatiba gisa. Ez da banketxe bat, eta, hortaz, ez du Espainiako Bankuaren Gordailuak Bermatzeko Funttsaren estaldurarik.

Coop57k hainbat mekanismo baliatzen ditu bazkideen ekarpenak bermatzeko:

- Soberakinak erreserbatara baino ez ditu bideratzen.
- Finantzaketa jasotzen duten erakundeei kapital sozialari ekarpen gehigarriak egiteko eskatzen die, maileguak bermatuko dituen funts solidario bat elikatzeko.
- Urtero, egin gabeko ordainketei aurre egiteko horniduretarako ahalik eta gehien esleitzen du.
- Mugatu egiten du erakunde bazkide bakoitzak jaso dezakeen maileguaren gehieneko kopurua, eta horrela arriskua banatzen du (erakunde batek ezin du maileguetan jaso Coop57k dituen baliabideen % 2 baino gehiago).
- Hainbat erakunderekin akordioak ditu arriskuak partekatzeko eta emandako maileguak bermatzeko (Europako Inbertsio Funttsa, elkar bermatzeko sozietateak, administrazio publikoak, fundazioak eta Ekonomia Sozial eta Solidarioko beste erakunde batzuk).

Coop57 modu demokratiko eta parte-hartzailean kudeatzen den kooperatiba da, eta hainbat mekanismo baliatzen ditu bazkideek beren egoera ekonomikoa uneoro behar bezala ezagutzeko eta erabakietan kolektiboki parte hartzeko aukera izan dezaten.

➤ **Ekarpen moten arteko konparazio-taula**

Mota	Derrigorrezko ekarpenak	Borondatezko ekarpen galdagarriak	Funts propioetara egindako borondatezko ekarpenak
Helburua	Coop57ko bazkide egitea.	Aurrezki solidarioa sustatzea, ekonomia sozial eta solidarioko proiektuak finantzatzeko.	Coop57ren funts propioak indartzea.
Funts propioekin duten lotura	Coop57ren funts propioen parte dira.	Ez dira Coop57ren funts propioen parte	Coop57ren funts propioen parte dira
Zenbatekoa	• Zerbitzu-bazkideak: 901,52 €. • Bazkide laguntzaileak: 300 €. • Lan-bazkideak: 901,52 €.	Gehienez 300.000 € bazkideko.	• Gutxienez: 1.000 €. • Gehienez: – Zerbitzu-bazkideak: 30.000 €. – Bazkide laguntzaileak: 15.000 €. – Lan-bazkideak: 15.000 €.
Ordainsaria	Ez dute ordainsaririk.	• Ordainsaria dute • 2024ko ordainsaria: Urtean % 0,5. • Hurrengo urteetako ordainsaria: Batzar Orokorrak ezarriko du.	• Ordainsaria dute. • Ordainsaria 2026ko maiatzaren 31 arte: Urtean % 2. • Ordainsaria 2026ko ekainaren 1etik aurrera: Borondatezko ekarpen galdagarrien ordainsaria + % 1,5 urtean.
		Ordainsariaren ordainketa: Urte bakoitzeko maiatzaren 31an.	Ordainsariaren ordainketa: • Lehen ordainketa: 2026ko maiatzaren 31an (2024ko azaroaren 15etik aurrera sortutako ordainsaria). • 2026ko ekainaren 1etik aurrera: Urte bakoitzeko maiatzaren 31an.
		Itzuliz gero, ez du inolako kenkaririk ordainsarian.	Itzuliz gero egin daitezkeen kenkariak: • 2026ko ekainaren 1a baino lehen itzultitako ekarpenengatik ez da ordainsaririk jasoko. • 2026ko ekainaren 1etik aurrera itzultitako ekarpenetan, sortutako ordainsaria osorik jasoko da.
Itzultzea	Ekarpena itzultzeak Coop57ko bazkide izateari uztea dakar.	Ekarpena itzultzeak ez dakar Coop57ko bazkide izateari uztea.	Ekarpena itzultzeak ez dakar Coop57ko bazkide izateari uztea.
	Ekarpena itzultzea Kontseilu Errektoreak onartu behar du, eta organo horrek aukera izango du baldintzarik gabe uko egiteko.	Berehala itzuliko da. Ez dago Kontseilu Errektorearen onenaren baldintzapean.	Ekarpena itzultzea Kontseilu Errektoreak onartu behar du, eta organo horrek aukera izango du baldintzarik gabe uko egiteko.
Itzultzeko epeak	Ez dute itzultzeko eperik, baina itzulketa Kontseilu Errektorearen hileroko bileren egutegiaren mende dago (hau da, itzulketa gauzatu arteko epeak hilabete iraun dezake, betiere Kontseilu Errektoreak baimena ematen badu).	Ez dute itzultzeko eperik, berehala itzultzen dira.	Itzultzea eska daiteke, honako epeetan: • Urte bakoitzeko urtarrean, maiatzean eta irailean, hilaren 10. egunera arte. • Dagokion zenbatekoa 60 egun naturaleko epean itzuliko da, Kontseilu Errektoreak horretarako baimena ematen badu.
Fiskalitatea	Ordainsaririk ez dutenez, ez dute atxikipen fiskalik.	Ordainsaria kapital higigarriaren etekintzat hartzen da, eta atxikipen fiskalaren mende dago (% 19 gaur egun).	Ordainsaria kapital higigarriaren etekintzat hartzen da, eta atxikipen fiskalaren mende dago (% 19 gaur egun).

➤ **Nola harpidetu ekarpenak?**

- **Web-orri honetan sartuta:**
- Posta elektronikoz harremanetan jarritz **socis@coop57.coop** helbidean edo 93 268 29 49 telefonora deituz.

➤ **Nola gauzatzen da ekarpenaren ordainketa?**

Ekarpena ordaintzeko, hiru aukera daude:

- Banku-helbideratze bidez.
- Banku-transferentzia bidez.
- Borondatezko ekarpen galdagarriak Coop57ren kapital sozialera intsuldatuta.

➤ **Nola egiaztatzen dira ekarpenak?**

2025eko urtarilaren 20tik aurrera Bulego Birtualean eskuragarri egongo den ziurtagiri baten bidez. Ziurtagiri hori eskuragarri egin artean, ekarpenak egin dituzten pertsona guztiek eskaeraren egiaztatzea izango dute, ekarpenaren baldintzen xehetasunekin.

➤ **Nola gauzatuko da ordainsariaren ordainketa?**

Ordainsaria (atxikipen fiskala deskontatu ondoren) kapital sozialari egindako borondatezko ekarpenen balioari gehituko zaio. Hala nahi izanez gero, ordainsariaren zenbatekoa adierazitako kontu korrontean sartzeko ere eska daiteke.

➤ **Nola eska daiteke ekarpenak itzultzea?**

E-mail bat bidaliz helbide honetara: **socis@coop57.coop**. E-maila jaso eta gero, bidali duenari itzulketa-formulario bat emango zaio.

Coop57ren **Bulego Birtualean** ere egin daiteke, “Eskaerak” atalean.